

Euskal jazzak presentzia nabarmena izango du beste behin ere Heineken Jazzaldian

Euskal jazzak presentzia garrantzitsua izan ohi du Heineken Jazzaldian eta horrela izango da 51. edizio honetan ere. Tokiko zenbait artista zuzenean kontratatu ditu antolakuntzak eta beste batzuk hautatze-prozesu bat igaro ondoren programatu dira.

Ohi bezala, hasteko, urtariletik apirilera arteko hautatze-prozesutik ateratako 11 taldeak daude, 2015ean diskoa argitaratu zutelako programatutako 5 taldeak, eta Musikenek proposatutako beste 3ak.

Aipatutako hautatze-prozesuari sostengu berezia eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Izan ere, prozesu horren bitartez, Heineken Jazzaldiak parte hartzen du Katapulta plataforman, zeinaren xedeak honako hauek diren: Gipuzkoako talentu gazteei bultzada bat ematea musikaren eta arte eszenikoen eremuan, eta gure lurraldeko eszena-aktibitateak dinamizatzea arloko klubei eta erakundeei sostengua emanez.

Gainera, beste talde bat haren kalitatea aintzat hartuta programatu da: Rural Zombies, goraldi meteorikoa izan duen pop-rockeko taldea. Jazzaldiko agertoki nagusi batean jardungo du: Heineken Agertoki Berdean.

Guztira, bada, 20 euskal talde eta bakarlarik hartuko dute parte Jazzaldian. Programazioa itxi aurretik, DJ batzuk eta, agian, beste talderen bat ere gehituko da.

Rural Zombies

Julia Urreaga (ahotsa), **Manu Rodríguez** (gitarra), **Luken Etxeberria** (gitarra), **Marcos Pérez** (baxua), **Aratz Etxeberria** (bateria)

Zestoako boskote gazte hau indartsu agertu da merkatu independentean *Bat* izenburuko bere lehen LP-arekin, non bandaren aurreko lanak –*Stones* EPa– utzitako inpresio ona berretsi baitute. Taldearen pop-rockeko piezak lehen entzunalditik barneratzen dira eta dantzarako gonbita egiten dute. Diskoaren

ekoizlea Eñaut Gaztañaga izan da, Grises taldeko abeslaria eta gitarrista, eta grabazioa haren estudioan egin da. Norbaitek The Cranberriesekin alderatu baditu ere, beren estilo propioa garatzen ari dira eta ez dira inoren imitatzaile.

Hautatze-prozesuan aukeratuak

Catalina's Neues Jazz Quintet

Catalina Gabriel (ahotsa), **Erik Niemitz** (pianoa), **Diego Rodríguez** (gitarra), **Ignacio Fombuena** (kontrabaxua), **Aaron Castrillo** (bateria)

2014an sortu zen Catalina's NJQ, laukote modura, eta geroago boskote bihurtu zen. Ideia nagusia jazzeko estandar klasikoak biltzea da, beste estilo batzuetan – bossa, bluesa, soula– sarraldiak egiteaz gainera. Beren bertsio propioak sortzen dituzte, originaltasunez eta gustu musikal handiz. Haien emankizunetan komunikazio handia egoten da ikus-entzuleekin.

Didier Datcharry Trio: *Tribute to Monty Alexander*

Didier Datcharry (pianoa), **Marie-Hélène Gastinel** (bateria), **Jean-Xavier Herman** (kontrabaxua)

Hiru musikari hauek 2008an elkartu zirenetik, jazzaren historiako hiruko klasiko handien –Oscar Peterson, Erroll Garner, Phineas Newborn Jr., Ahmad Jamal edota Monty Alexander buru zituztenak– unibertsoa lantzen saiatu dira buru-belarri, eta errepertorio erakargarriari forma ematea lortu dute. 2014an argitaratu zuten Tribute to Jazz Trios, publiko guztientzako pentsatutako album bat, 50. Heineken Jazzaldian aurkeztu zutena. Swinga da lan horretan nagusi, baina ordezkatuta daude jazz latinoia, bossa, balada eta reggaea ere.

Les Fous

Santi Romano (ahotsa, teklatuak), **"Otxi" Otxoa** (ahotsa, perkusioa), **Ainhoa Eguiguren** (ahotsa, perkusioa), **Unai Moraza** (gitarra, perkusio elektronikoa)

Les Fous ahots-hiruko gisa jaio zen, 2011ren erdialdera, Santi Romanoren (teklatuak, abeslaria eta konpositorea), Ainhoa Eguigurenen (Old Charm Blues-eko abeslaria) eta Olatz Otxoa "Otxi" abeslariaren eskutik. 2012an Manu Gestido (baxu-jotzailea) eta Unai Moraza (perkusio elektronikoa eta gitarra) gehitu ziren taldera. Formazio hori 2014aren azkenera arte mantendu zen, eta data horretan, Manu Gestidok taldea utzi zuenean, laukote bihurtu zen. Taldearen estiloa soul, pop eta R&Baren arteko fusio bat da. Zuzeneko jostaria eta indar handikoa dute, ahots-harmoniak eta edonor harritzeko moduko instrumentu-euskarria nabarmentzen direla.

Ghost Number & His Topsy Gypsies

David Pisabarro (banjoa, ahotsa), **Elena Arteagoitia** (biolina), **Daniel Olano** (perkusioa), **Iñaki López** (kontrabaxua), **Jon Ander Burgos** (tronpeta), **Jokin Madinabeitia** (gitarra)

Ghost Number & His Topsy Gypsies taldeak joan zen mendearen hasierako Amerika sakoneko soinuak, ekialdeko Europa zaharreko oihartzunak, oihan sakoneko danborrak eta antzinako beste hainbat doinu biltzen eta nahasten ditu. 2013aren azken aldera osatu zuen taldea 413 musikari eta ekoizleak bere "The 413" proiektuaren "old time" kutsuko zatiari forma emateko. Orduetik hona kontzertu mordoa eman dute hainbat sala eta jaialditan, horien artean, 2015eko Kutxa Kultur Festibalean.

Gregario de Luxe

Thelonious Tatum (ahotsa, teklatuak), **Cleofus Yeims** (baxua), **Godofredo de Dax** (bateria), **Elwood Pinzon** (gitarra), **Jake Mate** (gitarra), **Jammin' Jason** (saxo tenorra), **Jeffrey Jackson** (tronpeta), **John-John Bones** (tronboia), **Jumpin' Jodie D.** (saxo baritonoa), **Dina** (ahotsa, koruak), **Daisy** (koruak), **Dusty** (koruak), **Diane** (koruak)

Gregario de Luxek 10 urte bete ditu eta 60ko hamarraldiko soularen eta rhythm and bluesaren errebisioari beste bira bat emanez ospatu du urteurrena; gainera, Stax eta Motown diskoetxe mitikoen espiritua gogorarazten duten pieza propio berriak dakartzate, baina, aldi berean, pop-rockaren historiako abesti handien bertsioak ere egin dituzte, premisa batekin: zer soinu izango zuketan The Beatles, Police, Lou Reed, Queen eta beste hainbatek... Memphisen, Detroiten edo Philadelphian jaio izan balira 60ko hamarraldian? *That Groovy Night (Live at Zentral)* da talde nafar honen hirugarren diskoa, *Blues Tribute* eta *Hallelujah! (I Wanna Shout)* lanen atzetik datorrena. Ongi mantentzen du taldeak bere zuzeneko soinu indartsua, zeinari esker inguruotako kontzertu-areto eta jaialdi entzutetsuenetan jo baitute, horien artean, Heineken Jazzaldian, non bost aldiz hartu baitu parte Gregario de Luxek.

Half Quartet Plus Two

Josu Salegi (saxo altua), **Laurent Robino** (saxo altua), **Daniel García** (baxua), **Unai Olabarri** (bateria)

Half Quartet Plus Two taldea hard bop, cool eta free estiloen eraginak dituen jazzeko laukote bat da. Musikenen (Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia) ezagutu zuten elkar, eta nork bere aldetik hainbat taldetan eman duten denbora ikasteko eta esperientzia metatzeko baliagarri izan zaie. Formazio ez-ohikoak –bi saxofoi altu, baxu elektrikoa eta bateria– soinu modernoa eta ohiz kanpoko ematen dio taldeari.

The Modern Soul Gang

Miguel "Lawyer" González (ahotsa, pandereta), **David Burgui** (gitarra), **Kike Arza** (baxua), **Alberto Arteta** (saxoa, koroak), **Mario Díaz de Rada** (tronpeta), **Kontxi Lorente** (teklatuak), **Gorka Gaztanbide** (bateria, koroak)

Musika afro-amerikar ez-tandatsua, dantzagarria eta *feeling*-ez betea praktikatzen du super-talde berri honek. 2014an eratu zen taldea bluesaren eta jazzaren munduan eskarmentu musikal luzeko zazpi musikaririk soul musika egiteko helburuarekin bat egin zutenean. Musika genero horren barruan, The Modern Soul

Gang-en soinua hurbilago dago *seventy*-etatik *sixty*-etatik baino, gaur egungo soulean eta new soul deituan ere sarraldiak egiten dituzten arren: zetazko soula egiten dute, sentsuala, groovez josia, jazzeko eta funkeko eraginak biltzen dituen. Entzun eta, era berean, dantzatu daitekeen musika da, entzuleek soularen energia eta erritmoa esperimintatzea bilatzen duena. Talde honek hutsune bat betetzen du soul musikaren barruan, gure lurraldean orain arte okupatu gabe zegoena. Batzuek 50 eta 60etako musikara, eta beste batzuek disko-musikaren mugan kokatzen diren soinetara begiratzen duten hainbat banda ari dira sortzen, baina oraindik bete gabe zegoen 70etan nagusitu zen estiloaren espazioa, urte haietan heldutasun eta berotasun paregabeak iritsi baitzituen soulak. Taldearen lehen diskoa prestatzen ari dira: *Pure Soul*.

Reunion Big Band

Kassandra Charalampi (ahotsa), **Catalina Gabriel** (ahotsa), **Santiago Fernández de Madaria** (tronpeta), **Joan Gongora** (tronpeta), **Alejandra Artiel** (tronpeta), **Asier Ardaiz** (tronpeta), **Antonio Tercero** (tronboia), **Bruno Valle** (tronboia), **Jordi Arcusa** (tronboia), **Imanol Iribarren** (tronboia), **Laurent Robino** (saxo altua, saxo sopranoa, flauta), **Xabier Oruesagasti** (saxo altua), **Noel Sacristán** (saxo tenorra), **Jon Zufiaurre** (saxo tenorra), **Víctor Moreno** (saxo baritonoa), **Daniel del Valle** (gitarra), **Erik Niemitz** (pianoa), **Jesús García González** (kontrabaxua), **Daniel García Lisón** (baxu elektrikoa), **Nerea Quincoces** (perkusioa), **Wiliam José Díaz** (perkusioa), **Unai Olabarri** (bateria)

Reunion Big Band Europako hainbat txokotatik etorritako hogeitaz bat musikari gazte osatutako jazzeko talde handi bat da. Guztiak Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegiko (Musikene) ikasleak edo ikasle ohiak dira. Emanaldi arrakastatsuak eskaini zituzten Heineken Jazzaldiaren 2014 eta 2015eko edizioetan, Doka Kafe Antzokiko ohiko parte-hartzaileak dira, eta Donostiako lindy hop-eko dantzariekin batera, swing dantzaldiak antolatzen dituzte, zuzeneko musikarekin.

Luismi Segurado Trio

Luismi Segurado (pianoa), **Chuchi García** (baxua), **Aarón Castrillo** (bateria)
Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian (Musikene) sortutako taldea da. Pianistaren (Luismi Segurado) konposizioez gainera, jazzaren tradizioko piezen moldaketa propioen bat ere interpretatzen dute. Taldearen eragin garrantzitsuenen artean aipa ditzakegu Red Garland, Bill Evans, Ahmad Jamal, Oscar Peterson, Winton Kelly, Duke Ellington edota Bud Powell-en bandak.

The Soul Messengers

Kassandra Charalampi (ahotsa), **Carla Sevilla** (ahotsa), **Santiago Fernández de Madaria** (tronpeta, moldaketak), **Josu Salegui** (saxo altua), **Antonio Tercero** (tronboia), **Víctor Antón** (gitarra, korduak), **Javier Bello** (pianoa, teklatuak, korduak), **Daniel García Lisón** (baxua, korduak), **Aarón Castrillo** (bateria, korduak)

The Soul Messengers proiektuak 2012an hasi zuen bere ibilbidea Donostian. Taldearen xedea, zuzeneko emanaldi indartsuen bitartez, 70etatik gaur arteko musika beltz onena entzuleriari helaraztea zen. Haize sekzio indartsuak eta erritmo-oinarri sendoak babes ezin hobea ematen diete bi abeslarien ahots paregabei. 2013an grabatu zuten lehenengo maketa, eta joaldi arrakastatsuak izan zituzten 2014ko eta 2015eko Heineken Jazzaldietan. Gainera, Euskadiko blues eta musika beltzeko ia jaialdi guztietan hartu dute parte: Hondarribian, Gasteizen, Bilbon eta Tolosan. Arrakasta ukaezin horien ondoren, beren lehen diskoa grabatu nahi dute jatorrizko pieza propioekin. 2016aren erdialdera argitaratzea aurreikusten dute.

Swingpapers

Víctor Vega (tronpeta), **Laurent Robino** (saxo altua), **Mikel Núñez** (pianoa), **Daniel García** (baxua), **Unai Olabarri** (bateria)

Swingpapers Musikeneko (Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia) ikasleen artean 2013an sortutako jazzeko boskote bat da. Hard bop estiloko jazzeko pieza klasikoak eta eurek moldatutako estandarrak interpretatuz hasi ziren, baina, pixkanaka, beren konposizioak tartekatzen dituztela, errepertorio askotarikoa osatzera iritsi dira. Lehen grabazioa, 2013an, Iñigo Olabarri soinu-teknikariarekin,

La Hacería Jazz Cluben egin ostean, Epaimahaiaren Sari Berezi prestigiotsua irabazi zuten 2014ko BBK Jazz Erakustaldian. Epaimahaia honako hauek osatzen zuten: Juan Claudio Cifuentes, Joaquín Chacón, Mariano Díaz, Guillermo McGill eta Gorka Reino.

2015ean diskoa argitaratu dutenak

Mikel Andueza: 5 segundoero

Mikel Andueza (saxoa), **Chris Kase** (tronpeta), **Dani Pérez** (gitarra), **Gonzalo Tejada** (kontrabaxua), **Gonzalo del Val** (bateria)

Mikel Andueza saxofoi-jotzaile bikainak 2015ean argitaratutako disko onenetako bat -5 segundoero- entzuteko aukera eskainiko digu. Lan horretan nazioko musikari prestigiotsuenetako batzuk zuzentzen ditu Anduezak distira handiz. Diskoari izena ematen dion pieza 5 segundotik behin entzuten diren noten bidez eraikitzen da, esanahi guztiz berezi batekin: denbora tarte labur horretan haur bat gosez hiltzen da Afrikan. Axuri beltza nafar herri dantzaren moldaketa bat ere jasotzen du diskoak.

Broken Brothers Brass Band

Ion Celestino (tronpeta), **Mario Díaz de Rada** (tronpeta), **Eneko Urrestarazu** (tronboia), **Txarli Otsoa De Aspuru** (tronboia), **Adrián Martínez** (tronboia), **Iñaki Rodríguez** (saxofoi baritonoa), **Juan Pedro Medrano** (sousafonoa), **Alfonso Areta** (sousafonoa), **Jon Uribe** (dunbala), **Gorka Gaztambide** (kaxa), **Daniel Lizarraga** (pandereta)

Broken Brothers-en musika New Orleanseko brass band garaikideen soinuan oinarritzen da. Funkez, gospelez eta jazz modernoz kutsatuak daude taldearen interpretazio indartsuak, non garrantzi ikaragarria duen inprobisazio kolektiboak. Hainbat agertoki eta kaletan jo izan dute: Heineken Jazzaldian, Jazz al Margen deituan (Zaragoza), Haizetara kaleko banden jaialdian (Zornotza) eta edozein herritako jaietan.

Igelaren Banda

Amaiur Cajaraville (kontrabaxua, baxu elektrikoa), **Bixente Martínez** (gitarra elektrikoa, gitarra akustikoa, mandolina, sitarra, ukelelea), **Hasier Oleaga** (bateria)

Igelaren Bandak gure kantu edo dantza zaharrak oinarri hartuta, bertsio berriak sortzen ditu modu instrumentalean, konponketa eta harmonizazio berriak eginez eta beti inprobisazioari leku berezia emanez. Bixente Martinez Oskorriko partaide finkoa ez ezik, Hiru Trukuren sortzailetako bat izan zen. Hasier Oleagak hainbat egitasmotan parte hartu du eta Iñaki Salvador edo Ruper Ordorikaren laguntzaile fina da. Amaiur Cajaraville, gaztetan rockero izan eta gero, kontrabaxuan buru belarri dabil azken urteotan. Benito Lertxundi, Pantxoa ta Peio edo Oreka TX taldeekin jo ohi du.

Ainara Ortega: Scat

Ainara Ortega (ahotsa), **Mikel Andueza** (saxoa), **Baptiste Techer** (tronboia), **Iñaki Salvador** (pianoa), **Javier Mayor** (kontrabaxua), **Hasier Oleaga** (bateria)

2015eko euskal jazzeko proiektu interesgarrienetako bat argitaratu zuen Ainara Ortega donostiar abeslariak: *Scat* diskoa. Euskal jazzeko instrumentista onenetako batzuk lagun zituela, Ainara Ortegak diskoko pieza batzuk konposatu ez ezik, errepertorio guztia moldatu zuen, horrela bere diziplina anitzeko prestakuntza frogaturik uzten zuela. *Scat* aldarrikapen kosmopolita paregabea da, lau hizkuntzatan abestuta baitago (euskara, gaztelania, ingelesa eta portugesa).

Miguel Salvador Quartet

Miguel Salvador (gitarra), **Javier Alzola** (saxoa), **Jon Piris** (kontrabaxua), **Gonzalo del Val** (bateria)

Miguel Salvador Portugaleten bizi den bilbotar gitarra-joleak Musikenek egin zituen ikasketak. Hainbat taldetako partaide izateaz gainera –horien artean, Zubipeko Swing–, euskal jazzeko musikari ospetsuenekin lan egin du, Iñaki

Salvador eta Gonzalo Tejada tartean direla. Irakaskuntzan lan egiten du eta filmetarako soinu-bandak ere konposatzen ditu. Iaz argitaratu zuen bere hirugarren diskoa, *Código*.

Musikenek proposatuta

The Great Peacocks

Laurent Robino (saxo altua), **Víctor Antón** (gitarra), **Aritz Luzuriaga** (kontrabaxua), **Unai Olabarri** (bateria), **Catalina Gabriel** (ahotsa)

Talde honetako kideek elkarrekin ikasi dute Musikenen (Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia) eta beren talentuak elkartzea erabaki dute, batez ere, jazzeko estandarrak eta pieza klasikoak jotzeko, baina beste estilo batzuei – boleroak, bossa-nova, funk...– muzin egin gabe.

Landiblé Sextet

Kassandra Charalampi (ahotsa), **Laurent Robino** (saxo altua), **Antonio Tercero** (tronboia), **Álvaro Del Valle** (gitarra), **Tana Santana** (baxua), **Pier Bruera** (bateria)

Herritartasun desberdinetako Musikeneko ikasleekin osatutako taldea da Landiblé Sextet. Jazzeko pieza estandarrek, musika modernoak eta taldeak berak sortutako pieza originalek osatzen dute seikote honen errepertorioa.

Wednesday Project

Aarón Castrillo (bateria), **Daniel García Lisón** (baxua), **Javier Bello** (pianoa), **Bruno Valle** (tronboia), **Santi Fernández de Madaria** (tronpeta)

Musikeneko (Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia) ikaslez osatutako jazzeko boskote honek tradizioa eta modernotasuna bateratzen ditu. Taldearen erreferentzia nagusien artean daude Miles Davis eta Wayne Shorter. Errepertorioa, aipatutako artista handi horien piezak oinarritzat harturik,

51 Heineken® Jazzaldia

konposizio propioekin osatzen da, berorietan taldearen ezinegon musikalak islatzen direla.

donostiakultura.com

Heineken Jazzaldia. Erregina Erregeordea, 8 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 900 • faxa 943 483 300 prensajazz@donostia.eu www.jazzaldia.com

